

# EMMET GOWIN

2013.10.23 - 2014.01.26

## HURRENGO ERAKUSKETAK

Azaroak 5: GEMA INTXAUSTI 2014ko Urtarrilaren 19ra arte

### rekalde

Alameda de Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



FUNDACIÓN MAPFRE

# EMMET GOWIN

2013ko urriaren 23tik 2014ko urtarrilaren 26ra

Rekalde Aretoak eta MAPFRE Fundazioak antolatutako erakusketa

- MAPFRE Fundazioak ekoiztiko erakusketa honetan, Ipar Amerikako argazkilari honen ibilbidean funtsezkoak izan diren 200 irudi inguru bildu ditugu, hala argazkilaritza garaikidearen aiten eragina zuten hasierako lanak, nola pertsonalagoak eta barrukoagoak diren bat-bateko argazkiak, eta ekitaldi honetarako berariaz sortu dituen Granadako paisaiei buruzko azken sailak.

- **Emmet Gowin** (Danville, Virginia, 1941), intimitatearen argazkilaria, gai da errealtatean esekitako liparrik sentikorrena bere kamerarekin harrapatzeko. Erakusketako komisarioa den Carlos Gollonetek ustez, "bere irudien orijinaltasuna eta kameraren bidez harrapatzen dituen gai guztien artean dagoen emoziozko lotura" nabarmendu behar dira gehienbat. Ildo horretan, argazkien bidez, irudi bilakatzen ditu bere ideiak eta gogoetak. Bere argazkiak «poema autobiografiko» luze bateko «bertsoen» modukoak dira ia. Gollonetek gaineratzen duenez, Gowinek bere familiari argazkiak egiten dizkionean, "harri eta zur uzten gaitu, eguneroko bizitzako uneen aurrean jartzen baikaitu, gizateria dagoenetik munduko edozein tokitan arruntak diren liparren aurrean. Argazki zuzenak dira, apaindurarik gabeak".

- Ipar Amerikako artistak hamaika aldiz egin zizkion erretratuak Edith emazteari. Gowinek berak onartzen duenez, Edith izan zen bere musa eta pizgarria, emaztearengan aurkitu baitzituen naturaltasun pertsonalaren ezaugarriak oinarritzeko.

- Robert Frank, Henri Cartier-Bresson, Eugène Atget, Walker Evans eta Harry Callahan bezalako izen ospetsuen mireslea izan zen; eta Callahan izan zuen maisu eta hezitzaile, bere lehen urratsen gidari. Gaur egun, Gowinek leku nabarmena betetzen du XX. mendeko bigarren zatiko argazkilaritzaren historian.

rekalde | Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA

Emmet Gowinen (Danville, Virginia, 1941) bilaketa artistikoan, eragin nabaria izan zuten bere hezkuntzak eta biografiak. Oso etxe fededun batean sortu zen. Txikitatik egin zuen bat bere amaren izaera txeratsuak eta errukiorrak jainkotasunari buruz zuen ikuspegiarekin. Kuakeroen leinu baten ondorengo zen ama, artzain metodista zen bere aitak zuen izaera autoritario eta zorrotzaren ifrentzua.

Nerabazarotik hasi zen marrazteko zaletasuna garatzen, eta, horiek horrela, 1961ean Arte Grafikoetako lizentziatura hasi zuen Richmonden. Hala ere, handik hilabete gutxira, berehala ohartu zen, sorkuntza-arloan zituen aukera mugagabeak aintzat hartuta, argazkigintza zela zoria eta ustekabekoa sartzeko aukera emango zion biderik egokiena. 35 mm-ko Leicarekin egin zituen lehen argazkiak, Robert Frank, Henri Cartier-Bresson, Eugène Atget eta Walker Evansen eraginpean. Eguneroko bizitzako era askotako eszenak eta paisaiak dira horiek. Berehala hasi zen Edith Morris emaztearen erretratuak egiten, 1964an ezkondu baitzen harekin.

Harrez geroztik, emaztea izan zen bere laneko irudi nagusia, eta, oro har, Morrisen familiak zeregin garrantzitsua bete zuen bere argazkietan, batez ere 1965. eta 1967. urteen artean. Izan ere, orduantxe hasi zen 4 x 5 hazbeteko hauspoa zuen kamera erabiltzen, eta, horren bidez, bestelako ikuspegi eta esposizio-denbora ematen zituen, eta begirune gehiago izaten zuen objektuarekiko. Bereziki nabarmendu behar dugu Harry Callahanek prozesu horretan izan zuen eragina. Emmet Gowin Rhode Island School of Design-en egiten ari zen graduatu ondoko ikasketak zuzentzen zituen Callahanek, eta laguntza eman nahi zien ikasleei orijinaltasuna aurkitu zezaten.

1987ko abuztuan irakasle-lanetarako kontratatu zuten Dayton Art Institutuen (Ohion), eta, hala, aldi berri bati ekin zion Gowinek, bere emaztearekin eta Elijah lehen semearekin batera. Artista bezala, Daytonen eman zituen lau urteei esker, intuizioko eta introspekzioko bilakaera kontzeptuala izan zuen, errotikako bakuntze- edo murrizte-prozesua, arreta-gunea Edithengan kokatu zuen arte. Izan ere, Edith izan zen bere artelan berri gehienen protagonista. Garai horretako irudietan, bere-berea zuen ikuspegi artistiko

pertsonala azaltzen du, komunikazioaren indarrean eta bikotekidearekiko gogo-kidetasunean oinarrituta dagoen ikuspegi.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, ezustean, Gowinek 4 x 5 hazbeteko kamerako leierra erabili zuen 8 x 10 hazbeteko gailu batean. Horren ondorioz sortu zituen irudi zirkularrek begirada berri bat iradokitzen digute, eta debekatutako leku batera, errealtate ezkutu eta misteriotso batera sartzen ari gareneko irudipena helarazten digute. Leiar horren atzealdean kokatu zituen berriz emaztea eta familiako gainerako kideak, baina, oraingoan, beste protagonista bat nabarmenduta: Isaac bigarren semea, hala lehenik, haurdunaldian, nola gero, jaió ondoren.

Geroago, Emmet Gowinek naturaren eta paisaien deia sentitu zuen berriz, eta gizakiak naturaren gainean zuen eraginak piztu zuen bere arreta. Europara eta Asiara egin zuen bidaia, eta han sortu zituen erakusketa honetan ikusgai ditugun sailtako batzuk (Italiako Materan edo Petran egindako argazkiak), berriro ere euskarri laukizuzen tradizionalen. Hala ere, handik gutxira, beste urrats bat egin zuen paisaien dokumentazioaren bilaketan, eta aireko argazkilaritza egiteari ekin zion.

Arreta berezia egin zien St. Helens sumendiaren erupzioak izan zituen ondorio suntsitzailerei, eta, gero, Estatu Batuetako erdialde eta mendebalde urrunean eta Txekoslovakia bezalako herrialdeetan gizakiaren ekintzaz suntsitutako lurraldeei. Horren ondorioz, gizakiak lurraldean eragindako esplotazioari buruzko katalogo oso bat sortu zuen: Kansasko ureztatzeko zirkuluak, urik ez dagoen lekuan milioika litro ur xahutzen dituztenak; Nevadako basamortuak, proba nuklearren ondorioz ilargiko paisaiaren antza dutenak; edota Txekoslovakiako aire zabaleko ikatz-meategiak eta zentral termikoak, ingurumarietako lurralde zabala kutsatzen dutenak.

Azken urteetan, intsektuek betidanik sortu dioten lilura islatu du Gowinek bere artelanetan. Biologia tropikalari buruzko ezagutzak izateko eta katalogazioko lan zientifiko bat egiteko, Latinoamerikara egin zuen bidaia. Han, gaueko tximeleten argazkiak egin zituen etengabe. Prozesu horretan zegoela, bat-batean, Edithen silueta bat aurkitu zuen bere paper-zorroan, eta hala erabaki zuen emaztea bilakatzea berriz bere sorkuntza-lanen ardatz. Bere bi grina horiek uztartuz sortu zen *Gaueko tximeletak: Edith Panaman* saila.

Keith F. Davisek katalogoan idazten duenez, "Gowinen sorkuntzako ibilbide bikaina funtsezko logika poetiko sakon batean oinarritu da. Sakratua dena abiaburutzat hartuta, mailaz maila mugitu da, gorputza eta gehien maite duen izakia goratzetik, familiaren eta etxeko nutrizio-gunera, eta mundu naturalari buruzko ikuspegi gero eta konplexuago batera. Gai horiek guztiak desberdinak eta antzekoak dira aldi berean: funtsezko egia berberetara doazen bide desberdinak dira".



Edith, Danville (Virginia) 1963.  
Zilarrezko gelatina © Emmet Gowin,  
Pace/MacGill galeriaren kortesiaz, New York